

EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOAREN ALDE ETA INDARKERIA MATXISTA ERREPRODUZITZEN DUTEN EGITUREN AMAIERAREN ALDE

Genero-indarkeri ekonomikoa emakumeen aurkako indarkeria mota bat da, biktimaren baliabide ekonomikoak kontrolatu edo mugatzean datza, haren autonomia eta independentzia finantzarioa murrizteko. Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren eguneratzeak indarkeria adierazpen hori jasotzen du emakumeen askatasuna eta berdintasuna bermatzeko ikusarazi eta jorratu beharreko adierazpenetariko bat bezala, bai bikotearen eremuan, bai gizartean.

Genero-indarkeri ekonomikoaren mota nagusiak kontrol ekonomikoa, laneko eta/edo prestakuntzako sabotajea eta ustiapen ekonomikoa dira. Indarkeria hori egitura-mailan ere antzematen da: erakundeen ekintzarekin edo ekintza ezarekin, emakumeek beren eskubide ekonomikoak eskuratzea oztopa edo eragotz baitezake. Praktikan, honako hauek izan daitezke: baliabideak eskuratzeko diskriminazioa, izapideak edo ebazpenak atzeratzea, baliabide ekonomikoak eskatzeko dokumentazio guztia biltzeko zailtasuna edo emakumeen egonkortasun ekonomiko, fisiko eta emozionalerako prozesu judizial luze eta konplexuak.

Elkarte feministok funtsezko zeregina dugu genero-indarkeriaren aurkako borroka ekonomikoan, biktimak sentibilizatu, prestatuz eta lagunduz, eta, horrez gain, politikoki eraginez indarkeria mota hori aitortzeko, prebenitzeko, sentibilizatzeko eta desagerrarazteko, estrategiak egokituz arazo horri eraginkortasunez erantzuteko, emakume biktimengan arreta jarrita.

Elkarte-sare feministak sentibilizazio-kanpainak egiten ditu indarkeria ekonomikoa ikusarazteko; indarkeria mota hori detektatzeko eta horri heltzeko prestakuntza eskaintzen die biktimei zein profesionali, gizarte-lanean eta lege-lanean ikuspegi feminista sustatuz; eta ahalduntze- eta berreskuratze-prozesuetan ere laguntzen die emakumeei, laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala emanez, arreta integralarekin eta boluntarioria feministaren sareekin.

COMFIN-etik, eragin politikoa egiten dugu indarkeria hori prebenitzeko eta ikusarazteko, eta profesionali eta, oro har, herritarrei zuzendutako tresnak eskaintzen ditugu.

Horregatik, erakunde publikoak eta gizarte osoa gonbidatzen ditugu gai horretan gaitzea eta kontzientziatzea sustatzera, indarkeria matxista ahalbidetzen eta erreproduzitzen duten egiturak desagerteko lehen urrats boteretsu gisa.

Emakumeok elkarrekin, desagerraraz dezakegu, **ELKARTUTA INDARTSUAGOAK GARELAKO.**